

# 1- ENTZUN AURRETIK

## 1.1 Ibili zara inoiz?

Erantzun galderei:

- Txirringan ibiltzen badakizu?
- Motoan ibiltzen badakizu?
- Parapentean ibili zara inoiz?
- Eta piraguan ibili zara inoiz?
- Eskiatzen badakizu?



Binaka: galdetu zure lagunari, eta idatzi hemen bere erantzuna:

*Anek txirringan ibiltzen badaki, baina motoan ez. Ez da motoan inoiz ibili.*



Begiratu bideoaren irudi honi.

Zure ustez, zer galdetuko dio Amaiak Josuri? Egin hipotesiak binaka.

- Gustatzen al zaizu nire motoa?
- Ibili al zara sekula motoan? Probatu nahi duzu?
- Emango al dugu buelta bat motoan?



# 2. ENTZUN BITARTEAN

## 2.1 Zer esan du?



Orain entzun bideoaren lehen

atala. Zer galdetu du Amaiak? Idatzi behean.



Erantzun galderei:

Josuk badu autoa gidatzeko baimenik?	Josu ibili da inoiz motoan?
<input type="checkbox"/> - Ez, oraindik ez	<input type="checkbox"/> - Bai askotan
<input type="checkbox"/> - Bai, badu	<input type="checkbox"/> - Ez, aspaldian ez
<input type="checkbox"/> - Ez, baina laster aterako du	<input type="checkbox"/> - Ez, inoiz ez

## 2.2 Jarri martxan eta bagoaz!



Amaiak motoa martxan nola jarri esplikatu dio Josuri. Pausu hauek aipatzen dira bideoan. Entzun berriro bideoa eta binaka ordena itzazue. Ondoren, lotu eskuineko zutabearekin

Motoa martxan jartzeko pausuak	NOIZ
Ezker eskuarekin sakatu freno.....	Orduan.....
Sartu giltza kontaktuan.....	Hasteko..... 1
Eseri hemen..... 1	Orain.....
Azeleratu.....	Bitartean.....
Beste eskuarekin sakatu kontaktua...	Orain.....



Denok ordena berean jarri dituzue? Orain ikusi bideoaren zati hori, ahotsik gabe, eta ikusi bitartean, binaka esplikatu Josuri zer egin motorra martxan jartzeko. Ikus adibidea:

*Hasteko, eseri hemen, eta orain....*



### 2.3 Jarri arreta hizkuntzan



**Zer dakizu egiten? -t(z)en + jakin aditza**

- Badakizu motoan ibiltzen?
- Bai, badakit motoan ibiltzen. Eta zuk?
- Ez. Nik ez dakit.
- Nik erakutsiko dizut...

**Instrukzioak emateko denbora-markatzaileak:**

Hasteko,.../ Ondoren,.../ Gero,.../ eta azkenik,...

**Zerbait nola egin adierazteko:** Aginduzkoak, aditz laguntzailearekin edo gabe

- Eseri hemen.
- Sartu giltza. Azeleratu
- Kendu pedala.



Bilatu eta azpimarratu egitura hauek elkarrizketan. Binaka adostu.

**AMAIA.**— Josu, ibili al zara sekula motoan?

**JOSU.**— Ni? Ez, inoiz ez

**AMAIA.**— Probatu nahi duzu?

**JOSU.**— Orain? Ez dakit! Eta gidatzeko baimena?

**AMAIA.**— Ba al duzu autoa gidatzeko baimenik?

**JOSU.**— Noski, nola ez.

**AMAIA.**— Ba ez duzu besterik behar; moto honek 125 zentimetro kubiko ditu, eta autoaren baimena nahikoa da gidatzeko.

**JOSU.**— Ondo da.

**AMAIA.**— Hasteko, eseri hemen. Hori da. Orain sartu giltza kontaktuan, ezker eskuarekin sakatu freno eta bitartean, beste eskuarekin sakatu kontaktua. Aja! Eta orain azeleratu.

**JOSU.**— Horrela? Ondo egin dut?

**AMAIA.**— Oso ondo bai. Orain, kendu pedala hankarekin, bai. Eta bagoaz!

**AMAIA.**— Ei, ei, gauza bat ahaztu zaigu.

**JOSU.**— Ez, ez, den-dena egin dut. Zuk esan eta nik egin.

**AMAIA.**— Kaskoa, gizona, kaskoa!

**AMAIA.**— Eepa! Oso ondo.

### 3. ENTZUN ONDOREN

#### 3.1 Zuk ba al dakizu?



Juneke motoan ibiltzen badaki. Zuk zer egiten dakizu? Aukeratu bi gai eta prestatu bi gai horien inguruko oinarritzko hiztegia.

Gaiak	1-.....	2- .....
Hiztegia	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>



Irakasleak gaien zerrenda arbelean idatziko du. Nork zer dakien egiten apuntatuko du. Aukeratu ikasi nahi duzun zerbait eta joan ikasle horrengana. Berak erakutsiko dizu zer egin.

- *Nik ez dakit eskiatzen. Erakutsiko didazu?*
- *Bai noski. Hasteko, arropa egokia jantzi. Ondoren....*